BESTELAKO XEDAPENAK

ETXEPARE EUSKAL INSTITUTUA / BASQUE INSTITUTE

4660

EBAZPENA, 2013ko urriaren 8koa, Etxepare Euskal Institutuko zuzendariarena, merkatu izaerarekin antolatutako azoka eta jaialdi profesionaletan parte hartzeko diru-laguntzak arautzen dituen Etxepare Euskal Institutuko zuzendariaren 2013ko uztailaren 9ko Ebazpenean finkatzen den gehienezko zenbateko orokorra aldatzen duena.

AURREKARIAK

1.– Etxepare Euskal Institutuko zuzendariaren 2013ko uztailaren 9ko Ebazpenak diru-laguntzak emateko modua arautu zuen, musikaren, arte eszenikoen eta ikus-entzunezkoen arloko pertsona fisikoek eta pertsona juridiko pribatuek merkatu izaerarekin 2013. urtean antolatzen diren euskararen eremu geografikotik kanpoko azoka eta jaialdi profesionaletan parte har dezaten.

2.– Ebazpenak, bere 3. artikuluan, diru-laguntza horien zenbateko orokorra hirurogeita hamabi mila (72.000) eurotan finkatu zuen, modalitate bakoitzari dagokion zenbatekoa honakoa izanik: ikus-entzunezkoetarako, berrogeita hamabi mila (52.000) euro; musikarako, hamar mila (10.000) euro, eta, arte eszenikoetarako, hamar mila (10.000) euro.

3.– 2013ko irailaren 13an eskabideak aurkezteko epea itxi zen, eta jasotako eskabideen erregistro eta kuantifikazioaren prozedura hasi zen. Epe horretan zehar, ikusi da modalitate batzuetan jasotako eskaera-kopurua kontuan hartuta komenigarria izango litzatekeela deialdiko zenbateko orokorra gehitzea.

Ondorioz, hauxe

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ebazpenaren 3. artikuluan aurreikusitako diru-kopurua lau mila eta bost eurotan (4.005) eurotan gehitzea, modalitate bakoitzari dagokion zenbatekoa honakoa izanik: musikarako, ehun eta hirurogeita hamar (170) euro, eta, arte eszenikoetarako, hiru mila zortziehun eta hogeita hamabost (3.835) euro.

Beraz, aipaturiko ebazpenaren 3. artikuluan modalitate bakoitzerako aurreikusitako zenbateko orokorrak horrela finkatzen dira: hamar mila ehun eta hirurogeita hamar (10.170) euro musikarako; hamahiru mila zortziehun eta hogeita hamabost (13.835) euro arte eszenikoetarako, eta berrogeita hamabi mila (52.000) euro ikus-entzunezkoetarako.

Bigarrena.– Ebazpen hau EHAAn argitaratzea.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, interesdunek aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote Etxepare Euskal Institutuko zuzendariari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezakete Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko jurisdikzio horretako salan, bi hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Ebazpen honek hartzen denetik aurrera izango ditu ondorioak.

Donostia, 2013ko urriaren 8a.

Etxepare Euskal Institutuko zuzendaria,
MARÍA AITZPEA GOENAGA MENDIOLA.